




kontsumoBIDE

KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO



Medikamentuak: erabilera arduratsua

Kontsumoko Prestakuntza Adinekoentzat

- 
- ▶ **Automedikazioaren arriskuak**
 - ▶ **Kontuz publizitatearekin**
 - ▶ **Medikamentuen etiketa**
 - ▶ **Medikamentu generikoak**
 - ▶ **Gomendio orokorrak**

Automedokazioaren arriskuak

Medikamentuaren definizioa: Gaixotasunak edo gaitzak prebenitu, diagnostikatu, tratatu, arindu edo sendatzeko edota gorputz-funtzioetan edo egoera mentalean eragina izateko propietateez hornituta dagoen substantzia oro.

Automedikazioa arriskutsua izan daiteke.

Medikamentu guztiak arriskutsuak izan daitezke automedikazioan, baita gutxien espero duzun hori ere. (Adibidez, parasetamol edo bitamina gehiegi hartzea kaltegarria izan daiteke)

Beharrezkoak badira bakarrik erabil itzazu, eta osasun-profesionalen jarraibideak kontuan izanik. Pertsona bakoitza ezberdina da, bakoitzak bere osasun-arazoak ditu, medikamentuen aurrean erreakzio ezberdina izaten dugu... Zer hartzen den kontrolatzea oso garrantzitsua da, dosiak, maiztasuna...

Kontuz publizitatearekin

- **Ez utzi publizitateak lilura zaitzan**, eta saihestu automedikazioa. Soilik behar dituzun eta osasun-profesionalek errezetatu edo adierazi dizkizuten medikamentuak kontsumitu, eta hartzeko adierazi dizuten moduan hartu.
- Erosi medikamentuak saltzeko araututa dauden establezimenduetan soilik. **Interneten** bidez erositakoek ez dituzte beti eskaintzen beharrezko bermeak, gogoan izan, **legalki**, mediku-preskripziorik behar ez duten medikamentuak bakarrik erosi ahal izango dituzula.



Medikamentuen etiketa

Etiketa gure eskuetan dugun botikaren informazio-iturri handia da. Hona hemen sinboloetako batzuk eta, interpretatu ahal ditzazula, aurki ditzakezun siglak.



Hozkailuan kontserbatu.



Medikamentua erradiazio ionizatailearekin tratatua izan da.



Bost urtetik beherako iraupena.



Mediku-errezeta arruntarekin.



Estupefazianteen errezeta.



Psikotropikoen errezeta.



Arriskutsua izan daiteke gidatzerakoan.



Fotosentsibilitate-erreakzioak sor ditzake.



SIGRE puntuaren sinboloa. Iraungitako edo erabili gabeko medikamentuak eta horien ontziak utzi behar diren lekua, kudea ditzaten

SIGLAK

EFP. Farmazia Espezialitate Publizitarioa (Marka).

TLD. Iraupen Luzeko Tratamendua.

EFG. Farmazia Espezialitate Generikoa

MEDIKAMENTUEN KODE NAZIONALA

656822.4

Medikamentuen NANA da. 7 digituko zenbaki bat da. Lehen digitua 6, 7, 8 edo 9 baldin bada medikamentu bat da, eta bestela produktu sanitarioak edo parafarmaziakoak dira (inkontinentzia-pixoihalak, sendatzeko materiala, produktu kosmetikoak eta abar).

Medikamentu generikoak

“EFG” letrak (Farmazia Baliokide Generikoa) grabatuta dituztelako identifikatzen dira.

Printzipio aktiboaren izena.



Identifikatzeko beste modu bat zera da, medikamentu generikoak hura osatzen duen **printzipio aktiboaren** izena hartzea.

Medikamentu generikoez markako medikamentuen **kalitate, segurtasun eta eraginkortasun** berbera bermatzen dute, gainerako medikamentuen prozedura eta kontrol berdinak egiten zaizkietelako.

Gomendio orokorrak

- ▶ Saihets ezazu automedikazioa. Jarraitu osasun-profesionalen aholkuei.
- ▶ Ez utzi publizitateak harrapa zaitzan.
- ▶ Gogoan izan medikamentu orok arriskuak dakartzala.
- ▶ Irakurri arreta handiz medikamentuaren argibide-orria eta ontzia. Zalantza izanez gero, kontsultatu medikuari edo farmazialariari.
- ▶ Har ezazu konpromisoa medikamentuaren baztertze jasangarria egiteko. Ez metatu medikamentuak, eraman itzazu zure farmaziako SIGRE puntura.



Informazio gehiago:

www.kontsumobide.eus
www.aemps.gob.es